

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ana Seti3n kazetaria izendatu dute Nafarroako Lehendakariaren kabineteko zuzendari nagusi

*1996tik Yolanda Barcinaren kabinete burua izan da, hura Nafarroako
Gobernuko kontseilari eta Iru3neko alkate izan zen garaitik*

Viernes, 01 de julio de 2011

Ana Seti3n Rodr3guez (Santander 1955) kazetaria Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakariaren kabineteko zuzendari nagusi izendatu dute gaur.

Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu. Informazio Zientzietan lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean (1977) eta Zuzendaritza eta Kudeaketa Publikoan masterra egin zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan (2009). Administrazioaren Antolaketa, Giza Baliabideen Kudeaketa, Komunikazio eta Publizitateari buruzko hainbat ikastaro egin ditu. Gainera, Nafarroako Unibertsitateak eskaintzen duen Komunikazioaren masterrean irakasle laguntzailea da.



Ana Seti3n

Lanbideari dagokionez, Alerta egunkarian eta Cadena COPE irratan lan egin zuen. Ondoren, Iru3nera joan zen bizitzera, eta, han, Iru3neko Radio Popular de Pamplona irratan jardun zen albistegien zerbitzuan (1977-1983). 1984an, oposizioak egin ondoren, Nafarroako Foru Erkidegoaren Administrazioako funtzionari aritu zen, Prentsa Kabineteko goi-mailako tituludun kazetariaren lanpostuan. 1990an, merezimendu bidezko lehiaketa bidez, Nafarroako Gobernuko Prentsa Kabineteko buru izendatu zuten.

1996tik Yolanda Barcinaren kabinete burua izan da; lehenengo, Barcina Lurraldearen Antolaketako, Etxebizitzako eta Ingurumeneko kontseilari izan zen garaian eta, ondoren, 1999tik iragan uztailaren 11ra arte, Iru3neko alkate gisa egin dituen hiru agintaldietan.